



HIZNET, 2016

Hirigunean ezagutzatik erabilerarako jauzia egiteko eta harreman sareak euskalduntzeko eremu digitalaren ustiapena: markoa eta praktiken proposamena.

Hirigune erdaldunetako euskaldunak aisiaren bidez harremanetan jartzeko eta saretzeko IKTen baliatzea.

HIRIA BIDAIDE

Tutorea: Josu Aztiria
Ikaslea: Marta Chamorro Armendariz



Teknologia berriek ohiko hiriaren gainean hainbat geruza ikusezin zabaltzen dituzte. Geruza hauek gure eguneroko hiritar esperientzia hedatu eta handiagotzen dute. Kale-izendegia eta satelite mapak artean, herriko plaza eta sare sozialak: bi mundu hauen elkarpuntutan topatzen da gaur egungo hiria.



0. AURKIBIDEA
1. LABURPENA
2. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA
3. ABIABURUA: EUSKARAREN INGURUKO HAINBAT DATU
 - 3.1 EUSKAL HERRIA
 - 3.2 ARNASGUNEAK
 - 3.3 HIRIGUNEAK
4. EGUNGO ATAKA
 - 4.1 NOLAKO HIRIBURUA, HALAKO HIZKUNTZA
 - 4.2 EUSKARAZKO GIZARTE SAREAK HIRI GUNEETAN
5. PROPOSAMENA
6. EUSKARA ETA INTERNET
 - 6.1 KONEKTIBITATEA EUSKAL HERRIAN
 - 6.2 EUSKARAREN ERABILERA INTERNETEKO GIZARTE-SAREETAN
7. HIRIA
 - 7.1 SMART CITIES, HIRI DIGITALAK
8. SOZIALIZAZIOA SARE-GIZARTEAN ETA HIRAN
 - 8.1 INTERNET eta SARE-GIZARTEA
 - 8.2 ZIBERFETITXISMOA
9. AISIALDIA
10. PRAKTIKA ONAK
 - 10.1 HIRI KOLABORATIBOAK
 - 10.2 INTERNETEKOSARE-SOZIALAK
11. ONDORIOAK
12. BIBLIOGRAFIA



1. LABURPENA ETA JUSTIFIKAZIOA:

Euskararen berreskuratze-prozesuan geldialdi ttipi bat eginik, ezagutzan aurrera-pausu handia eman ondoren, erabileran bertze hainbertze egitea dagokigula aitorturik, eremu digitala ustiatzearen beharretik abiatu naiz, hirigune erdaldunetan euskarazko harremanak sortzeko eta sendotzeko aukera eraginkor gisa.

Abiaburu hura arnaguneak bere horretan aztertzetik paratu nuen bide-orria irudikatzerakoan. Fishamnek jaso zuen hizkuntza gutxitua biziberritzeko ezinbertzekoa zela hizkuntza hori nagusi den gune geografikoak izatea. Txepetxek, aldiz, hizkuntza-komunitatearen trinkotasunaren garrantzia azpimarratu zuen.

Arnaguneak hedatu behar direla gero eta gehiago entzuten dugu oraindik ere, baina gune bat euskararen arnagune izendatzeko hain baldintza zehatzak bete behar direlarik, aldi berean, baldintza horiek betetzea momentuz bideraezina den guneetarako zer egiten ahal den pentsatzea ere ez legoke gaizki. Horrela, bada, arnagune ez diren testuinguruak sailkatzen, hiriguneak nagusitu zaizkit, bertan bizi baita Euskal Herriko biztanleriaren zati handi bat.

Hortaz, lehen urratsetan ondokoak izan ditut aztergai: harremanak, sozializazioa, asiaildia, hiriguneak, hiriguneetako bizitza, hirien gizarte-politikak, XXI.mendeko mendebaldeko gizartea, Internet, saretzea...

Hala, hirietako gizarteak hirietako eremu analogikoarekin eta digitalarekin duen loturaz



oharturik, antolakuntza politikoaren garrantzia azaleratu da. Azkenean, eremu digitala eskuratzearen beharretik abiatu zena, hirien eremu biak (digitala eta analogikoa) uztartzetik etortzen ahal dena nagusitu da, beti ere, lurraldea eta gizartearen arteko harremanetik, XXI. mendearen hasieran gaudela, mendebaldeko hiriek hartzen ari diren bideari jarraiki, bizigarritasunaren dimentsioa gero eta zabalagoa den garai honetan.



2. SARRERA

Aurretik erran bezala, hiriguneetako erabilera izan da lan honen ardatz eta, batez ere, harengan eragiteko bide baten urratzea. Hiriguneetako euskaldunak xede-talde ditugula, euskaraz egiteko aukerarik ez dutenek aukera izan dezaten eta aukera gutxi dutenek gehiago izan dezaten, euren arteko lotura bultzatzeko informazio eta komunikazioaren teknologiaen egokitasuna antzeman da hirian, euskaraz egitea bizipen atsegina izan dadin, aisi-uneak partekatzea eragin-eremu hartu baita.

Euskal Herriko hiriguneek ez dute arnaguneen euskaldun ehuneko handi hori bera, baina kopurutan euskaldun asko, bai. Hiriok ez dira, bada, hiritarren %80 euskaldun dituzten arnagune izanen momentuz, baina bere esku dago bertan bizi direnendako topaleku izanen diren arnas-uneak sortu eta elikatzea. Eta, halaber, hizkuntza-komunitatea trinkotze aldera, neurri batean ere erdiesten ahal da elkar-ezagutzen ez duten euskaldunak harremanetan jartzea eta hiztun horien saretzea abian jartzea.

Hirietan bada euskaraz orain arte baino gehiago hitz egiteko masa, potentziala. Hiriek, bere zentzu zabalenean ulerturik, badute zer egin hiritar euskaldunak harremanetan jartzeko.


Hori dela eta, lan honek oinarrian hainbat eremuetatik edan du. Euskal Herriko egungo egoeratik abiatu da, eta ondotik hiria, sozializazioa eta aisiaren arteko ardatzari jarraitu, ondorioetara iristeko.




3- ABIABURUA: EUSKARAREN INGURUKO HAINBAT DATU

3.1 EUSKAL HERRIA

EZAGUTZAREN BILAKAERA



KALE-ERABILERAREN BILAKAERA





Lehendabiziko grafikoan argi eta garbi adierazten da azken hamarkadetan urrats handiak eman direla euskararen berreskurapen prozesuan, Ipar Euskal Herrian oraindik galerak badira ere. Bigarrenak, aitzitik, erabilerari erreparatzen dio eta ez du aurrera egin ezagutzaren abiadura berean. D eredia zabaltzearekin, ezagutzak gora egingen zuela aurreikusi zen, baita erabilerak ere, baina ez delarik maila berean eman, bien arteko desoreka nabarmena da.

Erabilerari buruz egindako hainbat ikerketek azaldu dute behin eta berriro euskararen erabileran eragiten duten faktore nagusiak, nahiz eta bakarrak ez izan, bi direla: erraztasuna euskaraz egiteko eta euskaldunen dentsitatea harreman-sarean.

Ikerketa honetan azkeneko aldagai horretan sakontzea izan dugu xede.



3.2 ARNASGUNEAK

Hizkuntzaren arnasmuneak zer diren eta zer ezaugarri duten labur eta simple azal genezake erranez leku hauetan hizkuntza gutxitua dela nagusi eta bertan gehiengoak naturaltasunez hitz egiten duela hizkuntza hori.

Zehaztasun handiagoz definitzeko, Mikel Zalbide eta Fismanenga jo eta honako azalpena aurkituko dugu:

Arnasmunea Fishman-ek physical breathing space esaten duena da. Hots, demographically concentrated space where Xish (gurean euskara) can be on its own turf, predominant and unharassed (1991:58). Euskaraz nolabait esateko, demografia aldetik euskara “bere kabian” sentitzen den bilgunea, inork xaxatu eta eraso gabe “etxeke jaun” sentitzen den eremua. Hori da, funtsaren funtsean, Fishman-en physical breathing space edo arnasmunea.

Euskaldunak euskaldunekin euskal giro sendoan bizi diren lekuetan, gurasoen hizkuntza belaunez belaun eskuratzen den lekuetan, hizkuntza-plangintzarik eta inolako interbentzio berezi (zenbaitentzat “xelebre”)-rikgabe diharduten ingurumenetan, horietan dago euskara bizien. Hor du euskarak osasunik hoberena. Hori da euskal arnasmune petoa, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa bere betean (beste leku gehienetan baino askoz nabarmenago) segurtatzen duena.

Aparteko antolamendurik gabe ikasten dute horietan haur txikiek bertako hizkuntzan. Hala ikasten dute hitz egiten. Lehenik hitz egiten eta gero, eskola eta abar lagun, irakurtzen, idazten eta bertan ahoz aho dabilen hizkuntza horren errejistro eta aldaera jaso, landu, formalizatuagoak erabiltzean. Hori da osasun oneko hizkuntzen belaunez belauneko jarraipen-bide normala, prototipikoa. Hori izan da euskararen mendez mendeko transmisio-bide nagusia



ere, lehen zatiari (etxeke eta auzoko hizkera bizia eskuratzeko bideari) dagokionez. Bigarreanean (erregistro formaleko, bereziki idatzizko lanketan eta garapenean) arras eskas ibili gara, ongi ezaguna denez. Lehentasuna dute, horregatik, hizkuntzari bizirik eutsi nahi bazaio eta indarberritu egin nahi bada. Horiek dira, Fishman-en eta beste zenbaiten ustean, hizkuntza indarberritzeko saioaren abiaburu natural eta baliagarrienak. Hori gabeko normalkuntza ez da normalkuntza. Ingurumen horien zaintza-ardura bigarren edo hirugarren lehentasun-mailara daramana ere ez. (Zalbide, 2008: 7-9)



3.3 EUSKAL HIRIGUNEAK

EUSKARAREN ARNASGUNE?

Aurreko atalean jasotakoa aintzat harturik, ez da ikerketarik behar erantzuna ezezkoa dela jakiteko, baina, hala ere, honatx datuak:


EUSKAL HIRIBURUEN BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOA

Hizkuntza-gaitasuna hiriburuetan (v. Inkesta Soziolinguistikoa, 2011)

| | GASTEIZ | BILBAO | DONOSTIA | IRUÑEA | BAM |
|-----------------------|---------|---------|----------|---------|--------|
| Guztira | 205000 | 308.000 | 159.000 | 169.000 | 99.000 |
| elebidunak | 15,5 | 16,3 | 33,5 | 9,1 | 8,7 |
| Elebidun hartzailleak | 18,7 | 17,6 | 14,4 | 9,3 | 6 |
| Erdaldunak | 65,8 | 66,2 | 52,1 | 81,7 | 85,3 |

Kale-erabilera hiriburuka Hego Euskal Herrian (Euskararen datu basea)

Kale erabilera, Udalerriak. Euskal Herria, 2011 (%)





Datuok azterturik, argi geratzen da Euskal Herriko hiriburuek ez dituztela arnagune izateko baldintzak betetzen eta epe laburrean ere ez dituztela eskuratuko. Kasurik onenean ere, hots, Donostiaren kasuan, erdaldunak erditik goiti dira. Hala eta guztiz ere, horrek ez du erran nahi euskaldunak kopuru absolutuetan guti direnik. Izan ere, hiri horretako euskaldunak 50.000 inguru izanen dira. Ez da guti.



4 EGUNGO ATAKA

4.1 NOLAKO HIRIBURUA, HALAKO HIZKUNTZA

Euskal Herriko hiriak euskal hiztunen bizileku nagusi eta elkargune dira egun. Dagoeneko lautik bat bizi da halako batean. Bilakaerari so, ezagutza-maila nabarmenki hazi da, erabilera, aldiz, oraindik apala da.

Euskal Herriko bizimoduaren joerak ikusirik, euskara eta bere iraupenari lotuz, hiriok erabakigarriak, premiazkoak eta estrategikoak dira. Bertan ematen dira herritarren arteko harremanak eta jarioak. Zerbitzu, jende eta administrazio metaketa eragin dute hiriguneek. Gainera, bertan bizi direnak ez ezik, eskualde-buru eta probintzia-buru diren neurrian, herritar gehiago erakartzen dute.

Hizkuntzari bete-betean eragin dio horrek euskara urteetan landa-eremuari atxikirik izan baita. Dena den, XX. mende erdialdetik hona, aldaketa sakonak izan dira Euskal Herrian (bizimoduan, irakaskuntzan, transmisioan eta erabileran), eta euskararen muga, ahulgune edo ezinak zirenak, abagune bilakatu dira orain. Izan ere, euskara poliki-poliki sartu da hiriburuetan, bere egoera biziberrituz.

Euskal hiriguneetako bilakaera soziolinguistikoa aztergai, egun, lau euskaldunetik (euskal hiztun) bat hirian bizi da, %25 alegia. Baina, aldi berean, hiru euskal herritarretik bat bizi da zazpi hiriburuetako batean, %33 hain zuzen. Donostian eta Donibane Garazin herritarren %40 inguruk daki euskaraz, baina Bilbo da euskaldun gehien duen hiriburua.

2014ko Euskaltzaindiak antolaturiko Jagon jardunaldietan, Jon Aizpuruak Euskal Herriko Hiriburuetako euskararen biziberritzea hizpide, ohartarazi zuen euskararen presentzia



hizkuntz paisaiaren araberakoa dela.

Haren erranetan, hiriak gero eta jendetsuagoak izan, orduan eta erabilera txikiagoa eta inguru erdaldunagoa dute.

Ituan, belaunaldi berriak azalaratu zituen Aizpuruak. Baiona, Angelu eta Miarritze dira kasu argienak. Beheranzko bilakaera izanagatik ere, joera aldaketaren zantzuak igarri dira. Urteotako galera etengabea moteldu eta berreskuratzeko bidean jarri da. «Baionan, adibidez, eten egin da jaitsiera». 65 urtetik gorakoek orainokoari eutsi diote, eta 25etik beherakoengan jarrita dago arreta. Hamar urtean egoerari buelta emateko gai izanen dira gazteak. 1991. urtetik %8,3ko hazkundera eduki dute, eta hura datu baikorra da. «Iparraldean giltzarri dira belaunaldi berriak».

Inkesta soziolinguistikoa egiterakoan, hain justu, adinei erreparatu eta esperotako datuak ikusi dira. «Zenbat eta gazteagoa, orduan eta handiagoa euskaldun kopurua. Agerikoa da EAEko hiru hiriburuetan». Ohikotzat du, betiere gorakadari bizkarra eman gabe. Datu bitxi bat erantsi zuen Aizpuruak bere azalpenetan: Donostian, gazte euskaldunak Bilbo eta Gasteiz batuta baino gehiago dira.

Euskaldunen lehen hizkuntzari dagokionez, euskaldun berriak nagusi dira Iruñean, Gasteizen eta Bilbon; euskal hiztunen %58tik gora dira. Erretratua, edonola ere, bestelakoa da hiri batetik bestera. «Ezin daiteke orokortu». Baionan, kasurako, diferentea da egoera: hamarretik zazpi dira euskaldun zaharrak. Murrizta da hiztun berrien pisua biztanle guztiekiko.

Erabilerari buruzko datuak ere eman zituen Aizpuruak. Aparteko berritasunik ez dago etxeke erabileraren diagnostikoan: «Gehienez, puntu bateko gorakada izan da; oso txikia». Eta



kalean, zer? Donostian orekari eutsi soilik ez, handitu egin da euskal hiztunen kopurua: ia %16 mintzo dira euskaraz. Kezka gainerako hiriburuetan da, apalegia baita euskaldunen dentsitatea; %3ren bueltakoa.

Jauzi bat egiteko, euskaldunak batzeko egitasmoak martxan jartzea eta harreman sareak ehuntzea beharrezkotzat jo du Aizpuruak, euskaldun zaharrek eta berriek aurrerapausoa eman dezaten. «Aukera ez daukanak nekez hitz egingo du euskaraz, salbuespen kasu bakanak gorabehera». (Jon Aizpuru, 2014)



4.2 EUSKARAZKO GIZARTE SAREAK HIRI GUNEETAN

Euskal hiztunen hiriko bakardadetik sartzera

Euskal Herriko hiriguneak euskaldun proportzio baxuko biziguneak dira, oro har. Baina, hirian bizi den euskal hiztunaren bakardadea ez da horretara mugatzen. Hori ez ezik, tartean ere bada elkarren berri ez izatea, hau da, elkarren arteko harremanik ez izatea. Gizartean bizi garen neurrian, dena den, harremanak eta harreman-sareak sortzen ditugu etengabe. Harreman sakonak nola hutsalak, baina beti kode batean, hizkuntza batean.

Herri tipietako komunitate trinkoetan ez bezala, hirian askozaz errazagoa da ondokoak ezagutu gabe bizitzea. Hiriguneetan, jendez inguraturik bizi arren, elkarren ondoan bizi arren, biztanleek ez dute elkar ezagutzen, ez herri batean bezala. Ohiko egoera da, inor harritzen ez duena. Hala, hirian bizi diren euskal hiztunak ere egoera horretan dira. Nahiz eta elkarren ondoan bizi, ez dute elkar ezagutzen. Ez diote sekula elkarri hitz egin, eta litekeena da euskal hiztunak direla ere ez jakitea.

Zer gertatuko litzateke hiriguneetan bizi diren euskaldun guztiak harremanetan, elkarlanean, jarriko balira? Donostian soilik, 46.000 lagun dira! (Eustat 1996).

Sanchez Carrionek azpimarratu zuen hiztun komunitatearen trinkotasunaren garrantzia eta horixe bera da hirian falta dena. Donostiako 46.000 hiztun horiek harremanetan jarriz gero, bertako hiztun komunitatea sendoa, sendoagoa bederen, izanen litzatekela ezin zalantzan jarri.

Zeregin honetarako, Martinez de Lunak eta Jausorok Eusko Jaurlaritzaren enkarguz



egindako EUSKARAZKO GIZARTE SAREAK HIRI GUNEETAN lanean harreman sareen ikuspuntutik abiatzea beharrezko jo eta gizarte sareen metodologiaren erabilgarritasuna nabarmentzen dute.

“Gizarte sareen metodologiaren balioa azterketa soziolinguistikorako ematen duen kontzeptualizazioan eta analisi enpirikorako aportazioan datza. Batetik, sareen kontzeptuak gizarte egituraren harreman egonkorak edo erregularrak kontuan hartzen dituelako eta, bestetik, harreman hauen egoerei eta osagaiei buruzko eraketa eta definizio zehatza burutzen dituelako.

Bestalde, metodologia honek hizkuntzaren erabilera harreman ingurune egituratu batean kokatzen du eta, beraz, harreman horien egitura eta ezaugarriak aztertuz hizkuntzaren erabileran dauden eragileak era osatuagoan azter ditzakegu. Azkenik, partaide bakoitzaren ezaugarrien berri ere jaso daiteke, informazio mota honekin azterketa hornituz. Beraz, gizarte sareen metodologiak hiru motatako informazio eskaintzen digu batera: partaide bakoitzarena, gizarte egiturarena eta, azkenik, lehenengoen gizarte egitura horretan sortzen dituzten harremanei buruzkoa. Hiru informazio iturri horietatik abiatuta, hizkuntzaren hautaketan edo erabilpenean agertzen diren eraginak era osatuagoan aztertzea ahalbidetzen da.” (Martínez de Luna, Jausoro, Berrio-Otxoa eta Idirin 1998)

Hiri guneetan ematen den egoera hau gainditzeko, beraz, hainbat dira aintzat hartu beharrekoak. Lehenik eta behin, M. de Lunak eta Jausorok ondorioztatu bezala, hiri guneetako euskal hiztunek elkarren berri izan behar dute. Euskaraz mintzatzeko aukerak ahalik eta handienak izan daitezzen, hiri guneetako euskal hiztunek jakin behar dute inguruan dituztenak euskaldunak direnentz, zuzenean erdaraz zuzendu ez daitezzen. Harreman batean erabiliko den



hizkuntza hasierako hartu-emanen ezartzen bada, are garrantzia handiagoa du horrek, gainera. Izan ere, gerora zail-zaila izaten da hizkuntza-ohiturak aldatzea. Harreman berriak sortzerakoan euskara harreman-hizkuntza gisa ezar dadin aukera aproposak eman behar dira. Euskararen egoera ez delarik normalizatua, helburu horretarako beharrezkoak ere bideratu beharko dira, planifikatu, aukera horiek emanen diren egoerak/lekuak eskaini.

Hala eta guztiz ere, euskal hiztunendako euskara komuneke ezaugarri bat izanik ere, sortzen diren harremanek, harreman egonkorrek, behinik behin, edukinak behar dituzte. Honela, edukinen araberako taldeak edota sareak sortzen ahal dira euskaldunen artean. Gizakiak, dena den, ikusmira handia du eta ez da zaletasun edota joera bakarrera mugatzen normalean. Hori dela eta, talde batean aurkitzen ez duzuna bertze batean aurkitzeko, hau da, bizitzako ahalik eta eremu zabalenera iristeko, elkarren arteko komunikazioa ezinbertzekoa da.

“Mota honetako multzoek *edukin* mugatu bat baldin badute hauxe bera izango da haien arteko banaketaren arrazoia. Halere, multzo ezberdinetako partaideek interes, zaletasun eta joera berdintsua izan ditzakete euren multzoek duten *edukinez* kanpo; horregatik, oso beharrezkoa da **multzoen arteko komunikazioa sortzea**, zeren eta, banaka bada ere, multzo desberdinak (edo beren partaideetako batzuek, behinik behin) elkarlanean has daitezke *beste edukin koiuntural edo berri batzuen* inguruan, horrekin sare berri bat sortzeko ateak irekiz.

Euskarazko topagune berriak sortuz harreman sare euskaldunik gabeko euskaldunek hutsune hori ase dezakete gogokoak dituzten jardueretan beste euskaldunekin burutzen dituzten bitartean”. (Iñaki Martínez de Luna eta Nekane Jaunso, 2008)



5. PROPOSAMENA

Hiriburuetako euskararen erabileran eragitea azken xede, hirietako euskaldunak aisiaren bidez harremanetan jartzeko eta saretzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologia baliatzea hiriaren eremu fisikoarekin uztartuz.

Hori dela eta, Baobat baten gisan, honako adarrak ditu oinarrian:


- Euskara eta Internet
- Sozializazioa
- Hiria
- Aisia



6. EUSKARA ETA INTERNET

6.1 KONEKTIBITATEA EUSKAL HERRIAN

INTERNETEN ESKURAGARRITASUNA EUSKAL HERRIAN



2007an Europar Batasuneko populazioaren %55ak zuen Internet etxean, eta %42 zen banda zabalaren jabe. Sei urte geroago, %79 eta %76 dira zifrak, hurrenez hurren. Bilakaera antzekoa izan da Euskal Herrian ere, nahiz eta Iparralden askoz nabarmenago hazi den sarera konektatuta dauden etxeen kopurua.

Euskal Herriko datuak Europa ekialdeko eta hegoaldeko zenbait estatu eta erregioren parekoak dira. Populazioaren zahartzea oso kontuan hartzekoa da hemen, oro har, 55 urtetik gorako Internet erabiltzaileak askoz ere gutxiago baitira, eta adin-tarte horretan asko zabaltzen den demografia piramidea da gurea. Hala ere, esan bezala, Iparraldeko zifrak



Hegoaldekoak baino dezente handiagoak dira Internet konexiodun etxebizitzetara dagokienez; Frantziar eta Espainiar estatuko prezioen arteko alde handia ere bada eragina duen beste faktore bat, beraz.

IKTak eta bereziki Internet ezinbesteko baliabidea dira gizarte ororentzat. Euskal Herriatik begiratuta, herritarren eta organizazioen garapen teknologikoak berebiziko aukera eskaintzen digu bai gizarte kohesioari begira, bai jarduera produktiboari begira ere. Horren ondoan, halaber, azpimarratzekoa da lurralde kohesioan edo euskararen normalkuntzan berebiziko ekarpena egiten ari dela teknologia.

Internet eta telematika informazio eta komunikazio teknologiadun gizartearen funtsezko oinarria da eta geroan ere izango da. Dela komunikaziorako, lankidetzarako edo jarduera produktiborako, Euskal Herriak Interneten bitartez herri gisa bizi eta jokatzeko aukera indartsua eskaintzen digu. (Gaindegia, 2014)


6.2 EUSKARAREN ERABILERA INTERNETEKO GIZARTE-SAREETAN

IPAR EUSKAL HERRIA

2011ko inkesta soziolinguistikoa, Interneteko gizarte-sareen erabilerari buruz galdetu zen. Inkestatuen % 29,2k gizarte-sareak erabiltzen dituela adierazi zuen: % 17,5ek egunero edo astean bizpahiru egunetan, eta % 11,7k asteburuan edo noizean behin. Interneteko gizarte-sareak gazteek erabiltzen dituzte gehienbat: 16 eta 24 urtekoen % 85,8k, gazte erabiltzaileen %



37,4k egunero. Erabiltzaileen % 2,9k euskara erdara beste erabiltzen du eta % 1,7k euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 4,1ek erabiltzen du eta % 2,5ek euskara erdara baino gehiago.




EAE

2011ko inkesta soziolinguistikoan, Interneteko gizarte-sareen erabilerari buruz galdetu zen. Inkestatuen herenak (% 34,7) gizarte-sareak erabiltzen dituela adierazi zuten: % 23,8k egunero edo astean bizpahiru egunetan, eta % 10,9k asteburuan edo noizean behin.



Interneteko gizarte-sareak gazteek erabiltzen dituzte gehienbat: 16 eta 24 urtekoen % 89k, hirutik bik (% 65,9) egunero. Erabiltzaileen % 5,3k euskara erdara beste erabiltzen du eta % 10,1ek euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 10,3k erabiltzen du eta % 23,9k euskara erdara baino gehiago.




NAFARROA

2011ko inkesta soziolinguistikoa, Interneteko gizarte-sareen erabilerari buruz galdetu zen. Inkestatuen herenak (% 37,7) gizarte-sareak erabiltzen dituela adierazi zuen: % 24,7k egunero edo astean bizpahiru egunetan, eta % 13k asteburuan edo noizean behin. Interneteko gizarte-sareak gazteek erabiltzen dituzte gehienbat: 16 eta 24 urtekoen % 91,6k, gazte



erabiltzaileen % 60,8k egunero. Erabiltzaileen % 2,1ek euskara erdara beste erabiltzen du, eta % 3,5ek euskara erdara baino gehiago. Gazteen artean (16-24 urte), euskara erdara beste % 4,3k erabiltzen du, eta % 9,1ek euskara erdara baino gehiago.



EUSKARAREN ERABILERA INTERNETEN

PuntuEUS Behatokiaren arabera, %17 da euskararen erabilera Interneten. Edo, zehatzago erranda, Interneteko domeinu nagusietan (.eus, .com, .es, .org...) dauden webguneen %17k erabiltzen du euskara, banaz bertze. Euskararen Kale Erabileraren azken neurketaren arabera %13,3koa da euskararen kale-erabilera. Interneten ematen dena baino apalagoa, beraz.



Interneteko TLD (lehen mailako domeinu) nagusietan euskarazko edukia duten webguneen ehunekoa aztertuta, nabarmen gelditzen da .EUS domeinua dela euskara gehien duen TLDa. Kasu honetan euskarazko edukia duten webgune kopurua %88koa da eta euskararik ez duten domeinu-kopurua %12an kokatzen da. Esan daiteke beraz .EUS domeinua dela euskararen arnagune digitala. Gainerako domeinuen kasuan, euskararen presentzia haien webguneetan %20aren azpitik dago kasu gehienetan. Gaur egun guztira 16.559 dira Euskal Herrian euskarazko edukia duten webguneak eta horietatik 4.500ek .EUS domeinu-izena dute.

Banaketa geografikoari dagokionez, .EUS domeinuak mundu guztian du zabalkundea, erregistroen %10a Euskal Herritik kanpo egin direlarik. Euskal Herrian egindako erregistroen datuak aztertuz gero desorekak ikusten dira lurraldeen artean, agerian utziz domeinuaren presentzia handiagoa dela euskarak indar gehiago duen lurraldeetan. Nahiz eta hiriguneen inguruko datu zehatzik ez eduki, ondorengo mapa nahiko argigarria da:





7 HIRIA

Irudikapenaren espazioa

Espazio publikoa irudikapenaren espazioa da, gizartea ikusgarri egiten den lekua, hain zuzen ere. Agoratik XX.mendeko manifestaldi politiko jendetsuetara, espazio hauetatik abiaturik ulertzen eta kontatzen ahal da hiri baten historia. Asko dira horrelako lekuetan bizitzen direnak, New Yorkeko harrotasun gayaren egunetik, Veneciako ihauterietara, Irungo alardetik, Tuterako barazkiak goraiatzeko jardunaldietara. Honelako jarduera hiritarrak espazio publikoan baizik ezin dira eman.

Erabilera anitzeko espazioa

Hiriko espazio publikoa ez da eraikin eta karriken artean geratzen den hondar-espazioa. Eta, halaber, ez da arrazoi juridikoengatik soilik publikotzat jotzen den espazio huts bat. Ez da espazio berezitu bat, hara joatea propio eskatzen dizuna museo batera edota ikuskizun batera joatean bezala. Hobeki errateko, espazio publiko potentzialak dira, baina zerbait gehiago egin behar da espazio publiko hiritarrak izan daitezen.

Espazio publikoa hiria da

Hiriaren historia espazio publikoarena da. Hiritarren eta boterearen eta hiritargoaren arteko harremanak karrketan gauzatzen eta adierazten dira, baita plaza, parke, hiritarren topaleku edota monumentuetan. Hiriek, sare-sistema edota hainbat elementuren taldekatze gisa ulerturik, paseoa eta topaketak ahalbidetzen dituzte, hirien baitako zonaldeak antolatu eta zentzua ematen diete, talde adierazpenaren eta aniztasun sozial eta kulturalaren alor



fisikoa dira. Bertzela erranda, espazio publikoa aldi berean hirigintzaren espazio nagusia da, baita hiri kulturarena eta hiritarrena. Espazio fisiko, sinboliko eta politikoa da.

Egun espazio publikoa berriz ere ahoz aho, bolo-bolo

Bada hiriaren eta hirigintzaren historian zehar aldizka ematen den erreakzioa. Hiri hazkundearen formak edota hiriaren bilakaerak eraikinei edota oinezkotasunari lehentasuna ematen diotenean, segregazio soziala nahiz zonifikazio funtzionala dela eta espazioak espezializatzen direnean, hiriak autoerrepresentazioaren nolakotasuna galtzen duenean erreakzio sozial eta kulturak bat ematen da espazio publikora itzuliz, espazio publikoa berreskuratuz. Erreakzio honen baitan sarri bat egiten dute "passeisme"ak eta modernitateak, iraganaren mitifikazioak eta etorkizunerako sintesi proposamenak, tokiko eskaerek eta balio unibertselek. Hala ere, erreakzio baliagarria eta beharrezkoa da hiri-hondamena saihesteko.

Barreiatzearen kontra, XIX.mendetik XXI.menderat

XIX.mendea hiria suntsintze/eraikitze mendea izan da, espazio publiko bezala. Perspektiba historiko pittin batekin erraten ahal da Hussman eta Cerdáren arteko sintesia utzi duela eta, zenbait unetan uste izan da mugimendu modernoak asumitu eta gainditzeko ahal zuela, hiria bertze eskala batean egiteko. Hortaz, ez al da pilatu Leon Krierren pesseismoa eta Rem Koolhaasen hiriaren arteko dikotomia? XX.mendeko hiria egin dugu XXI.mendeko hiriaren erronka berriei aurre egin ahal izateko? Bertze modu batera erranda, hiri barreiatu eta informazionala, metropolitanoa baino eskualdekoa dena, desegituratzea eta polizentralitatearen arteko tentsioan egin dugu? Egun hiri modernoaren aztarnen eta periferien artean egiten da. Hirigunearen



segregazioaren eta segmentazioaren definitu gabeko magma baten eta barreiatzearen presioaren aurrean, funtsezkoa da hazkunde berriko zonaldeetan hiri espazio publikoak berriz definitzea. Dimentsio sinbolikoa berreskuratu behar da hiri espazioak hiri erreferentzia gisa identifikatzeko. Koneksiorako guneez edo topalekuez edota guneez nodalek zentzuz beteriko espazioak izan behar dute, hito zibiko bat. Zentralitate berriko guneei zentro-guneen ezaugarriak eman behar zaizkie, hau da: monumentaltasuna, erabilera aniztasuna, elkartrukea, elkartzeko eta adierazteko lekuak. 3. sektoreko izaera duten guneeetako etxeak mantendu edota berriak eraiki, industria biziguneetatik ez baztertu, ghetto izateko arriskua duten operazioak mugatzea edo zigortzea, hiriko zonalde guztietako balio-aniztasuna, nahasketa eta ikusgarritasuna bermatzea. Horiexek dira hiri politikek bideratu beharko lituzketenak eta agente sozial eta ekonomikoek, publikoek zein pribatuek, bere egitea ez legoke gaizki, hiriaren ekoizle eta sustatzaileen artikulazioa ahalik eta hobien artikulatzea bermatzeko. (J. Borja eta Z.Muxí, 2000)



7.1 SMART CITIES, HIRI DIGITALAK

Komunitate eredu berri bat da, non teknologia berrien bidez inguruarekin eta agente sozialen artean erlazionatzeko modu berriak sortzen diren.

Elkarlotuta, elkarkonektatuta dagoen hiria da eta bertan tokiko botereek zerbitzu sorta berri bat sortu dute, teknologia hiritarren beharizanen zerbitzura jartzeko.

Haren atzean teknologia berriak sartzea dago hirien bizi-kalitatea hobetzeko baina ez soilik udal zerbitzuekiko hartu-emanetan, baizik eta kulturaletan, osasun-zerbitzuetan, turismoan, merkatarizan, aisialdian, prestakuntzan..ere.

Udalek gero eta paper garrantzitsuagoa jokatzen dute berrikuntza eta modernizazio prozesuetan hiritarregandik hurbilen daudenak baitira, baita enpresetatik ere. Hurbiltasun honen bidez udalerrien errealitatea ezagutzen ahal da, baliabideena, beharizanena, mugena... Horrek udalak behartzen ditu aktuazio-politiketan berrikuntza eta garapen teknologikoa sustatu eta bizkortzen duten ekintzak garatzera, arduradun eta kudeatzaile publiko diren heinean, udalerria eta herritarrendako onura ekonomiko eta sozialak ekarriz.

Smart City (hiri adimenduna) kontzeptuak 6 ardatz bereizten ditu:

- smart economy (ekonomia adimenduna),
- smart mobility (mugikortasun adimenduna),
- smart environment (ingurumen adimenduna),
- smart people (gizarte adimenduna),
- smart living (bizitza adimenduna)
- smart governance (gobernu adimenduna).



Hiri bat adimenduna izateko baldintzak honako hauek dira: giza eta gizarte-kapitalean eta komunikazio-azpiegitura tradizionaletan (garraioa) eta modernoetan (IKT) egindako inbertsioek garapen ekonomiko iraunkorra eta bizi-kalitate handia sustatzea, natura-baliabideen kudeaketa zuhurra egitea eta gobernu-partehartzailea izatea.

Smart City edo hiri adimendun bat ingurunearekin konprometitutako hiria da, abangoardiako elementu arkitektonikoak ditu eta bere azpiegiturek irtenbide teknologikorik aurreratuenak dituzte, herritarrek hiri-elementuekin duten elkarreragina errazteko eta haien bizitza erosoagoa izateko. Smart kategoriak etengabeko hobekuntza-prozesua du berekin; horretan, eragile publikoen eta pribatuen arteko lankidetzak funtsezko eginkizuna betetzen du.

Munduan hainbat ekimen daude hiri adimendunen inguruan, bakoitzak bere ikuspegia duela (energia, ekonomia, mugikortasuna, e-gobernua eta abar). Energiaren alorrean lan egiten ari diren hiriek funtsezko eginkizuna bete nahi dute mundu mailako iraunkortasunaren eremuan. Arrakastarik handiena lortu duten ekimenen arabera, hiri adimenduna izateko, herritarrek, sektore publikoak eta pribatuak lankidetzan jardun behar dute baliabide erabilgarriak ahalik eta ongien kudeatzeko. Energiaren arloko trantsizioa da, zenbait alorretan elkarlanean arituz, hiria energiaren aldetik eraginkorragoa izatea xede duena. Hurbilpen horiek mesedegarriak dira ingurumenaren eta gastu energetikoaren aldetik, baina baita herritarren enpleguaren eta osasunaren ikuspuntutik ere.



Hiria ulertzeko moduan aldaketak ematen ari dira eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren lantegietan honako azpi-elementuetan sailkatua izan da hiria, poliedroa osatzen duten prismetan antzera. Horrenbertzez, hainbat ingurune dituela erraten ahal da:

- **Natura ingurunea:**

Hiria eta bere ingurunea. Lurralde antolamendua, paisaia, ekologia.

- **Ingurune eraikia:**

Hiria eta bere etxeak. Etxebizitzaren, industriaren, zuzkidura/ekipamenduen, azpiegituren eta espazio libreen arkitektura.

Atal honetan hiri finkatua berregituratzeko modu berriak azaleratzen ari dira. Hiria kudeatzeko eta finantzatzeko modu berriak aztertzen ari dira, eta plangintzaren malgutasuna eta egokigarritasuna, hiri ekosistema eta ekologiarekin eta iraunkortasunarekin lotura handiena duten alderdiak aztertuta.

- **Ingurune sozial eta politikoa:**

Hiria eta pertsonak. Hirigintza eta dinamika sozialak, zuzkidurak/hiri berpiztea, gentrifikazioa, partaidetza, hiriaren merkantilizazioa, publikoaren pribatizazioa, auzotar mugimenduak.

Gai hauek jorratzen ari dira: pribatuaren eta indibidual kolektiboaren arteko mugak, herritartasun anitza, partaidetza printzipio gisa inguruneari buruzko erabakiak hartzean, bertzeak bertze.



- Ingurune digitala:

Hiria eta sarea. Ezagueraren, hirigintzaren eta errealitate areagotuaren laugarren sektorea, hiriaren geoerreferentziazioa, hub-ak, workshop city protocol, smart citie-ak.

Teknologiak kudeaketan eta hiri espazioan eta hiriaren eraldaketan duen pisua nabaria da; hiri adimenduna versus hiritartasun adimenduna; eten digitala eta ekonomia berriak eta aukera teknologikoak, eta kode irekiko (open source) enpleguaren ahalmenak eta mugak. Teknlogiek hiri kudeaketa irekiago batean eta sormen eta eraldaketa kolektiboko prozesuetan duten zeregina aztergai da egun, hiritarra subjektu politiko gisa, herritarren partaidetza, partaidetzazko tresnak eta sare sozialak. (AGORA 2015 Hiri Berrikuntza Lantegiak)

Konektatutako hirien azken helburua hiritarren bizi kalitatea hobetzea baizik ez da, zerbitzu publikoen prestazioaren eraginkortasuna handitzetik, ingurugiro-egoera hobetzeraino, tartean eragin-esparru anitz direla. Gainera, aukerak harago doaz, gero eta indar handiagoa baitauka eredu honek politika publikoen ardatz bihurtzeko.



8 SOZIALIZAZIOA SARE-GIZARTEAN ETA HIRIAN

8.1 INTERNET eta SARE-GIZARTEA

Internet egun eta une honetan geure bizitzen ehuna da. Oraina da, ez geroa. Internet hamaika gauza egiteko kanala da, gizartearen osotasunarekin elkarreragiten duena.

Oinarri-oinarrira joz, Internet euren artean komunikatzeko gai diren ordenagailu-sareen sarea da. Ez bertzerik. Hala ere, teknologia hura teknologia hutsaz harago doa. Komunikabidea da, elkar eragiteko bidea da baita gizarte-antolakuntzarako bidea ere.

Internet dagoeneko bilakatu da bizitzen ari garen gizarte egitura berriaren funtsezko komunikabide eta harreman bide, eta aurrerantzean ere hala izanen da. Sare-gizarteaz ari gara, hain zuzen ere.

Soziabilitatea Interneten

Esparru honetan gertatuko zena aurreikusi nahian, anitz dira erran direnak, eta zeharo kontrajarriak ere. Internetek alienatzen duela erran da, depresiora eramaten zaituela, geure buruaz bertze egitera... eta, aldi berean ere, honelakoak entzun dira: mundu izugarria dela, askatasun osoa ematen dizuna, garapenerako aukera guziak eskaintzen dizkizuna, mundu osoak elkar maite duena, mundu osoa komunitatean bizi dena... Horren inguruko ikerketak ez dira gutxi, dena den, eta ondorio sendoak atera dira. British Telecomek Aquí no pasa nada deituriko ikerketan erakutsi zuen ikerketagai izan ziren etxeetan Internetek ez zuela aldaketarik ekarri. Hortaz, Internet jarrerak garatzen dituen tresna da, ez aldiz, jarrerak aldatzen dituena. Jarrerak bere egiten dute Internet, eta hori dela eta, jatorriz direna abiapuntu, areagotu eta



potenziatu egiten dira.

Gauzak horrela, jarrerak dira Internet aldatzen dutenak. Torontoko Unibertsitateko Barry Wellmanen ikerketak honakoa erakutsi du Interneteko komunitateen inguruan: Interneteko komunitate birtualak komunitateak dira, hau da, soziabilitatea sortzen dute, harremanak eta giza-harreman sareak sortzen dituzte, baina ez dira komunitate fisikoetako komunitate berak. Komunitate fisikoek harreman jakin batzuk dituzte eta birtualek, aldiz, bertze logika bat eta bertze harreman mota batzuk dituzte. Eta, zein da, bada, logika hura eta zeintzuk harreman mota horiek? Interesgarriena komunitate pertsonalen kontzeptua da. Bertan elkartzen dira interes pertsonal, afinitate, kidesun, zaletasun eta baloreak konpartitzearen ondorioz, nolabait. Hau da, geure gizartean proiektu indibidualak garatuz doazen neurrian, hots, gu garena eta izan nahi duguna abiapuntu harturik bizitzari zentzua emateko proiektuak, Internetek lotura hori egiten laguntzen du egunerokoaren muga fisikoen gainetik jauzi eginaz, bai bizitokian baita lantokian ere, eta horrenbertez, kidesun-sareak eraikitzen ditu.

Erakutsi da Internet egokia dela harreman ahulak garatzeko eta sortzeko, baina ez horren egokia harreman sendoak sortzeko eta, banaz bertze, bikaina da harreman fisiko batetik existitzen diren loturak sendotzeko, indartzeko eta jarraitzeko. Zentzu honetan, garatzen ari den joera norabide honetan doa: komunitate fisiko tradizionala oinarrian duen soziabilitatearen txikiagotzea. Auzoa oinarrian zuen soziabilitatea galbidean dago. Sozializazioa eraldatzen ari da batzuk sozializazioaren pribatizazio izenaz deitutakoaren bidez. Honela, loturak eta harremanak inguruan bizi eta lan egiten dutenekin beharrez, propio bilatzen ditugunekin eraikitzen dira. Hautazko loturak (propio hautatutako harremanak) dira. Bizikletaz ibiltzeko



kide bat nahi badut, lehenik eta behin, bilatu beharko dut. Hori da abiapuntu berria eta Internetek gisa honetako harreman-pertsonalen eraikuntza eman dadin aukerak garatzea ausarki ahalbidetzen du.

Wellman Internek gainerako sozializazio moduetan duen eragina neurtzen saiatu zen eta jardun horretan Interneten inguruko mitoak kontrajartzen dituen aferak batekin topo egin zuen: “gehiago, gehiago da” edo “gero eta gehiago, orduan eta gehiago”. Gero eta gizarte-sare fisiko zabalagoa, orduan eta gehiago erabiltzen da Internet. Eta gero eta Internet gehiago erabili, orduan eta gehiago indartzen da dagoeneko duzun gizarte-sare fisikoa. Hau da, badira soziabilitate handiko norbanakoak eta taldeak non soziabilitate erreala eta birtuala parekoak edota korrelatiboak diren. Eta, halaber, badira soziabilitate ahuleko pertsonak, zeinak soziabilitate erreala eta birtuala ere korrelatiboak dituzten. Honelakoetan, batzuetan, Internet bidez eragin orekatzailea lortzen ahal da, hau da, Internet isolamendutik ateratzeko erabili ahal izatea, nolabait.

Berkeleyn Marcia Lipmanek egindako ikerketa batek hamaika komunitate birtual ikertu ondotik, bertze funtsezko datu bat eman du: komunitate birtualen arrakasta komuneko interesak lortzeari begira elkarrekin aritzearen menpe dago, neurri handi batean. Nerabezaroaren mekanismoetatik harago, Internet eginkizun politiko edota pertsonalak aurrera eramateko, interes zehatzei bide emateko erabiltzen denean sortzen da interakzio sendoena. Horrenbertez, lineako gizarte berri bat sortu izana baino ikusten ari garena da gizarte-sareek Internet bere egin dutela, baita lana antolatzeko ereduak ere, nola eginkizun zehatzek. Eta, aldi berean, harreman ahul asko, off line mantentzeko zail-zailak liratekenak, on line ematen ahal dira.



Gizarte-mugimenduak Interneten

Badira hiru ezaugarri nagusi Internet eta gizarte-mugimenduen arteko elkarrekintzan:

- 1- Orain arte egituraturik eta erroturik izan diren erakunde eta antolaketa eredu tradizionalak krisian daude, hala nola, alderdi politikoak, jardunbide politikoko erakundeak... Eta, aldi berean, gizarte-aktore eta eragile berriak sortzen ari dira, nagusiki helburu zehatzen inguruan eraikitako koalizioak direnak: emakumearen eskubideak defenda ditzagun eta salba ditzagun baleak, baina erakunde izaera beharrez, kanpaina zehatzen bidez jardun dezagun. Aldaketa bat eman da, jauzi bat antolaturiko gizarte-mugimenduetatik sareko gizarte-mugimenduetara, balore eta egitasmo zehatzen inguruan eratutako koalizioak oinarri dituztenak. Internet antolakuntza-egitura da eta komunikaziorako lanabesa, mobilizazioaren malgutasuna eta behin-behinekotasuna ahalbidetzen duena eta aldi berean koordinazio-izaera gordetzen du, baita mobilizazioaren ikuspegiari heltzeko gaitasuna ere.
- 2- Geure gizartean gizarte-mugimenduak gero eta gehiago ematen dira kodigo kulturalen inguruan, baloreen inguruan. Badira mugimendu aldarrikatzaile tradizionalak oraindik, baina egun, garrantzitsuenak balorren mugimenduak dira eta horrenbortzez, komunikazio gaitasunaren menpe daude, baita balore, ideia eta sinesmenei eusteko dei horren bidez babesa eta atxikimenduak lortzeko gaitasunaren menpe ere. Ideia eta baloreen mugimenduak dira. Internet marko handi bat den heinean ideien berehalako transmisioa ahalbidetzeko egoki-egokia da, eta hari esker, baloreen inguruan koalizio eta atxikimenduak ematen dira.



3- Boterea mundu-mailako sareetan mugitzen da, baina jendeak bere bizipenak eta bere baloreak, erresistentziarako lubakiak, bere alternatibak, tokian-tokiko gizarteetan eraikitzen ditu.

Hala, tokian-tokiko mugimenduen eta bizipenen mundu-mailako konexioa ematen da.

(Manuel Castells, 2001)



8.2 ZIBERFETITXISMOA

Interneten hasierako hamarkadatak bizi izan ditugu eta mendebaldeko gizartean eraldaketa sakonak izan dituela erraten ahal da, harremanak ulertzeko moduan nagusiki. Baina molde berri hori biziatu egin da nolabait eta eskuak erre egin zaizkigu eta beharbada, hasiak gara sentitzen zer eta zenbat galdu dugun eta ez ote den berreskuratzeko garaia. Hausnarketa garaia bada, baliabideei eman nahi diegun erabilera dugu aztergai, kolokan eta kinkan. Ez dugu Internet desagerraraziko, baina dagoeneko konturatu gara hor ez dugula irtenbide guztien kutxa aurkituko, bere eragin gaitasuna mugatua dela eta erabilera okerra emanaz gero, xurgatzen ahal zaituela iparra galaraziz. Hortaz, jakinki oreka bat bilatu beharra dagoela, lan honetan proposatzen dena garaian garaiko baliabideei ahalik eta erabilera eraginkorrena ematea da. Desfetitxizatzea ideologia futurista garaikidea eta iraganeko aukera estaliak berriz ere agertzea.

Erran bezala, IKTek hiri-gizartea neurri handian eraldatu badute ere, ez dute mugarik gabeko gaitasunik eta tentuz ibiltzea eskatu ere, eskatzen dute, elkarren ondoan bizita ere atarian agurtu beharrean WhatsApp bidez emotikono bat igortzea aski dela pentsatzen bukatu nahi ez badugu.

Beldur horretatik abiatuz, Ziberfetitxismoaren altzora hurbildu eta haren inguruan Cesar Renduelesek jasotakoak lekua hartuko du atal honetan.

Lehenik eta behin, ziberfetitxismoa gizarte-loturaren kontzepzio merkantilaren azpi-ekoizkintzat jotzen duela argituko dugu. Komunikazioaren teknologiek eta ezagutza elkartuek testuinguru sozial, politiko eta instituzionalekiko zentzu neutroa dutela sinestean datza.

Hainbat gai jorratzearekin batera Renduelesek Sociofobia liburuan dogma ziberfetitxista



hura zalantzan jartzen du. Bere ustez, sarearen ideologiak gizarte-errealitate areagotua beharrez, murriztua eragin du. Esku-hartze politikoari edota harreman pertsonalei eskatzen genionarekiko maila apaltzea ekarri du.

Postmodernitatearekin lotura sozial tradizionalen suntsitze-mugimendua bizkortu egin da eta hankaz gora utzi ditu karrera laboralen jarraitutasuna, harreman afektiboak eta familiarrak edota leialtasun politikoak. Trukean eskaintzen digun alternatibaren oinarrian soziabilitate eredu berriak ditu: gero eta handiagoa den subjektu hauskorren arteko kontaktu sare bat, adabegi arin baina sarria, dena elkarren artean konektatua dagoena ortopedia teknologiko ikusgarri bati esker.

UTOPIA DIGITALA

Ziberfetitxismoa

Determinismo teknologiko garaikideak ez du uste aldaketa politiko handiak behar direnik teknologiaren baliagarritasun soziala maximizatzeko. Justu kontrakoak. Batetik, teknologia garaikidea, esfera publikoaren mekanismo tradizionalak gaindituko lituzkeen neurrian, postpolitikoa litzateke. Bertzetik, teknologia eraldaketa sozial askatzaileen iturritzat du. Horrenbertzez, determinismo teknologikoaz baino, fetitxismo teknologikoaz solasten gara atal honetan. Izan ere, ideologia hau nagusiki komunikazioaren teknologien esparruan garatzen da, ziberfetitxismoan hain zuzen ere.

Silicon Valleyko ideologiaren ikusmoldetik, gailuen arteko harremanek berrantolaketa sozial justuago eta oparagoa eskuratzeko oinarriak jarri ez ezik, transformazio sozialak ere eragiten dituzte.

Bada, ziberfetitxistek garrantzi handia ematen diote teknologiari, baina ez dute argitzen zehazki nola eragiten duten aldaketa teknologikoek egitura sozialetan. Hori dela eta,



egiten dituzten proposamen gehienek izaera arrunt ideologikoa dute edo arrunt formala, afera etiko eta legeletan ardaztua, gaitasun eraginkorrean edota berau erabiltzeko beharrezko baldintza materialetan izan beharrean.

Jabetza intelektualaren afera, errate baterako, horren adibidea da. Orain arte ez zen geure bizitzetan horren presente eta azken hamarkadetan, aldiz, interesgune handia izatera pasa da. Garaiotako teknologo batzuk jabetza intelektualaren alorra jorratzen dute eta eztabaida teknozientifiko garaikideko ardatz dira afera legalak, albo batean geratuz egitura sozialean, botere harremanetan edota geure identitate pertsonalean teknologiak dituen efektuak .

Copyleftaren utopia

Kooperazioa da honen baitako ezaugarri nagusietako bat. Jabetza intelektualarekin loturiko murrizketak kentzean, copyleftak produkzio-espazioak eraikitzea sustatzen du, non koordinazioa naturaltasunez sortzen baita, sare kolaboratiboetan elkartzearen ondorioz.

Honek badu dimentsio kognitiboa baita soziala ere. Dimentsio kognitiboari dagokiolarik, ideologia kaliforniarraren ikusmoldearen arabera, Internet inteligentzia-puskak elkartu eta erlauntz gisako adimen bat osatu arte taldekatzen diren espazioa da.

Eta, bertzetik, Copyleftak ezagutzak gehitzeaz harago, kooperazioa sustatzen du zentzu sozialean berean. Jendeak komuneko ekimenak has ditzan bidea errazten eta motibatzen du. Kolaborazioa noizbehinkakoa izan arren eta gainerako kolaboratzaileekin kontaktu pertsonalik ez izan arren, komunitate kooperatibo batean parte hartzen ahal da. Informazioaren eta konektibitatearen teknologiak oinarri-oinarrizkoak dira kooperazio honetarako.



Lotura pertsonalik ez izateak proiektu kolaboratiboetan oso bertzelako jendeak parte hartzea, konpromiso maila desberdinekoak, sartzea eta ateratzea ahalbidetzen du. Kooperazioak izaera masiboa izaten ahal du muga geografikorik ez baita eta sare sozialen efektu biderkatzaileak partaide bakoitzak lotura anitz edukitzea posible egiten baitu.

Gauzak honela, ideologia zibernetikoaren dogma handienetako bat azaleratzen da: komunikazioaren teknologiek bere-berea duten gaitasuna soziabilidadeari bide emateko.

Askori exotiko samar suerta dakieke teknologia pertsonen arteko harremanak zabaltzen eta sendotzen lagungarri izatea. Azken hiruzpalau mendeotako historia harreman sozialak etengabe ahulduz joan izanak markatu du, ordura arte harremanak ulertzeko moduaren aitzinean, bederen. Zientzia sozialak ia-ia aho batez lotu dituzte modernizazioa eta lotura komunitario tradizionalen suntsiketa. Oro har, aitzinatze teknologikoak harreman eta esperientzia pertsonalen xehatze-prozesua bizkortzen duela pentsatu izan da, baita zuzenean eragiten duela ere.

Zentzu honetan, komunikazioaren teknologiak paradogikoak dira. Ideologia garaikideari jarraiki, teknologia tradizionalaren kontrako efektua dute. Jakina, ez dute harreman eta subjektibitate tradizionalerako itzulia eragiten. Hori baizik, modernitatean ohikoa den harreman sozialen ahuldade eta indargabetzea konpontzeko gai diren belaunaldi berriko harreman-sorta baten hazia dira.

Copylefta nahi honen burutzapena bera da: oso bertzelako jarduera kooperatiboetan parte hartzen duten norbanakoen multzoa dugu, horrela jarduteak berekin inolako loturarik edukitzea eskatu gabe. Copyleftak garapen ekonomiko, sendotasun komunitario, sorkuntza indibidual eta askatasuneko egoera bertutetsu batera hurbiltzen gaitu.



Egun inork ez du espero Facebookeko adiskide batekin edota Twitterreko jarraitzaile batekin duzun harremana benetako adiskidetasunaren parekoa izatea. Baina orokorturik dagoen ahuldade sozial honen inguruan, agian, lortzen ahal dugun antzekoena izanen da. Anitz jendek uste du egun mendebaldeko gizartearen zementua espazio telematikoan gorpuzten dela eta hor elkartzen direla norbanako autonomoak beren komuneko interesengatik ez bertze harremanengatik.

Gakoa honakoa da, beraz: komunikazioaren teknologiaren harreman sozialek asmatu dute elkarbizitzen subjektibitate postmodernoaren hauskortasunarekin. Are gehiago, haren menpekoak dira.

Anonimatoak eta berehalakotasunak nork nahi duelarik komunitate bateko kide izan, kolaboratu eta konpartitzeko aukera ematen du, hala nahi duelarik eta nahiago duen pertsonarekin. Interneten bat egiten dute subjektibitate ez-jarraiek, unean uneko lehentasunek baizik ez dituztenak elkartzen. Komunikazioaren teknologiek nortasun enpirikoa ongi banatutako identitateetan zatitu egiten dute, eta, batez ere, mekanismo tekniko bat planteatzen dute jarduera soziala berrosatzeko partaidetza-tresnen bidez. Lotura lauso eta ez-jarraiek baina teknologikoki indartuek harreman sozial klasikoak ordezkatzeko dituzte. Ingurune teknologian dugun parte-hartzea geure identitate pertsonalaren muturreko plastikotasuna batzen duen bektorea da.

Renduelek, egoera honen aitzinean argi du zibersozialitate honen sekretua geure nahiak apaltzean datzala. Egia erranik, 2.0 erremintek ez dute modernitatean ematen ari den harremanen hauskortasuna konpondu, ezta izaera postmodernoaren zatiketaren arazoa ere.



Afera are ilunago egiten du protesi sozial informatikoak zabalduz. Komunikazioaren teknologiek errealitate sozial gutxitua eragin dute, ez areagotua.

Nolanahi ere, jendeak sarean kolaboratzen du eta Sareak jendea konektatzen du.

2.0 KOOPERAZIOA/ELKARLANA

Ezagutza librearen aldeko mugimenduen baitan aise topatzen ahal den paradoja teknologiaren indarra gehiegi estimatzea da. **Aitzinatze teknologikoa beti joanen da testuinguru sozialari atxikia, ez baita beregaina.**

Teknologo gehienek bizkarra ematen diote gizarte garaikidearen arazoei. Ematen du Internetekin posible dela gizarte tradizionalen ingurune adeitsu eta ulergarriarekin bat egitea, gizarte industrialaren kontraesan odoltsu eta konpongaitzen parentesiaren ondoren. Hau ziberaktibismoan eragin sakona izan duen dinamika dugu. Hori dela eta, agian, merkantilizazioaren aitzinean, alternatiba bakarra da "komuneko ondasunen" kontzeptua berreskuratzea. Aspaldi existitzen den errelikia historiografikoa dugu, bere bertute nagusia ondokoa dena: ez zaitu zer eredu instituzionalean zehaztu/egikaritu behar den adieraztera behartzen.

*Commons*ak ingurune intelektual adiskidekorra dira, desagerturiko gizarteetatik heldu direnak edota desagertzear daudenetatik, maila teknologiko baxu-baxua dutenak. Zer dela eta izan bada modu altruistan bere denbora programatzen, itzultzen, azpitoluak idazten, musika partekatzen, zinema partekatzen ematen duene jendea? Honelakoak anitzetan irabazi asmorik gabe eta modu erabat anonimoan egiten dira. Ez da harreman sozial tradizionala, jakina, baina



kontsumismoaren ezaugarritzat ditugun harreman sinplista horien artean ere ezin dugu jokabide hori kokatu.

Kasurik gehienetan, kooperazio digitala ez dago harreman pertsonal tradizioaletan oinarriturik, erakunde formaletan ezta interes berekoian ere. Orduan, bada, nola lortzen dute komunikazioaren teknologiek kooperazioa sortzea oso instituzio arinekin, edota deusik gabe, eta harreman pertsonalik gabe? Honendako erantzun sarriena altruismorako bidea ematen dutela da. Merkatuak egoismoan oinarritzen ahal den kooperazioa izugarri arintzen ahal du, baina kanal ezegokia da zeharo eskuzabaltasuna eta bertzeen ongizatearekiko kezka transmititzeko. Interneten ematen den kooperazioan, antza, bi mundu horietako onenarekin agertzen da: unibertsaltasuna eta altruismoa.

Harreman pertsonal ez merkantilen oinarrian iraunkortasuna dago eta horietako anitzetan espero da bertzeekiko gutxieneko kezka, ardura adieraztea. Interneten noizbehinkako hartu-emanak ditugu inplikazio pertsonal maila apal-apalarekin. Baina merkatuarekin alderatuz, Interneten badago altruismoarendako lekua.

Altruismoa lehentasun pertsonal bat da, bertze edozein bezala. Altruismoa bertzerengatiko interesak lehenestea da, geure interesen aitzinetik. Enpatia garatzen dugun egoerek bertze pertsonetikiko kezka edukitzeko probabilitatea handitzen dute.

Jokabideak: jokabie instrumentala eta arauzko-jokabidea

Egunerokotasunean oso bertzelakoak diren 2 jokabideren arabera jokutzen dugu. Arrazionalitate instrumentalaren ikuspegitik, norbanakoak arrazionalki jokutzen du nahi duena



eskuratzeko, eskura dituen baliabiderik onenak aukeratzen baditu. Merkatuan jokabide hau eduki dezagun espero da. Haatik, arauzko jokabidearen oinarrian arrazionaltasun instrumentalaren mendean sekula jarriko ez diren komuneko arauak daude, eta ez dago argi nola sortzen diren. Familiartean baita lagunartean ere agintzen du jokabide honek. Testuinguruak beti du eragin handia arauengan, baita interpretazioak ere.

Normalean, giza-taldeek kooperazio kolektiboarekin loturiko arau sozialak sortzen dituzte baita kolaborazioa behartzen eta bizkarroikeria zigortzen duten instituzioak ere. Eta arazoa honetan datza: egiaztatu da horrelako arauak eta instituzioak ezin direla norbanakoaren kalkulu instrumentaletik sortu. Perspektiba aldaketa sakona eskatzen du. Sarri, hartu-eman sozial eraginkorrena ez da inondik inora arrazionala ikuspuntu instrumentaletik.

Soziabilitatea arau eta instituzioekin loturik dago, sinesmen eta nahi indibidualetara murriztu ezin ditugunak.

Konpromiso-harreman askok altruismoa irmoki suspertzen dute. Hortaz, sarritan bi kontzeptuak nahasi egiten dira. Baina arauzko konpromisoa ez badago altruismoaren menpe, zeren menpe dago, bada? Harrema pertsonalen eta instituzioekiko harremanen menpe, hain zuzen ere. Batzuk nola bertzeek desioak, ahalbideak, aukerak eta desertzioaren onurak mugatzen dituzte, bertzeen esfortzuaren bizkarroikeria berekoia dela edota egoera bidegabe baten aitzinean harturiko erresistentzia morala dela.

Interneten ematen den kooperazioak erakusten du ez garela sistematikoki geurekoiak. Anitz jendek aukeratzen du bere denbora bertzeei ematea eta partekatzea hori egiteko presio soziala eta pizgarriak arrunt eskasak direlarik. Sarean hurkoarekiko kezka infinituki noizbehinkakoa izaten ahal da, ez baitago inongo arauzko-egitura egonkor bati loturik. Lehen



begi-kolpean honek ez luke zertan arazo bat izan. Are gehiago, gizarte konplexuen berezko dilema dena konpontzen duela ere ematen du.

Ingurune digitalak bere-berezkoak ditu indibidualismoa eta anonimatoa, merkatuan ematen direnen parekoak, baina horrek ez dizu hurkoarekiko kezka edota ardura galarazten. Interneten monada indibidualak izaten ahal gara, geurekoi arrazionalak izan gabe.

Dena den, bada murrizte erabakigarri bat. Ingurune digitalean kooperazioa altruismoaren baitan geratzen da, norbanakoaren hautu gisa ulerturik. Hortaz, ez da konpromisoaren menpekoa, arau sozial gisa ulerturik. **Konpromiso kooperatiboa ez da ematen ingurune digitalean parte hartzeagatik huts-hutsik. Hobesten ahal duzu edo ez, eta egiteko arazoiren bat eduki behar duzu, berez honela joka dezadan behartzen nauen arau sistematik ez baita.**

Interneten ez da arauzko konpromiso sendorik eta antza badira taxuzko arazoak pentsatzeko ez dela sistemakoki egon beharrik ere. Altruismo anonimoa praktikatzen dugu berekin bazter-konpromisoak baizik ez baitakartza.

Afera ez da zintzotasun etikoa, inplikazio pertsonalaren sentimendua edota koherentzia, baizik eta **modu egonkor eta eraginkorrean jarduera kooperatiboa kolektiboki arautuko dituen arau-sistema existitzea**, ez dadin, bertzerik gabe, hautu pertsonala izan.

Ziberfetiixistek uste dute komunikazioaren teknologiek soziabiliate mota bitxi bat sortzen dutela jarduera indibidual zatikatuen gurutzaketaren ondorioz. Kooperazioa izanen litzateke antzeko interesak dituzten norbanakoen bateragunea espazio komunitario puru batean.

Komunikazioaren teknologiek ahalbidetzen dute komunitate mota berri baten fikzioa.



Hau antolaketa sozial eredu berria da *ni*aren zati ezberdinez osatua, identitate pertsonalaren infinitesimez osatua hain zuzen ere.

Utopia postpolitikoa, inor izatekotan, Internet da. Izan ere, XX.mendeko arazo nagusiak gibelean utzi izanaren ustea du oinarrian. Postmodernoek imajinatzen dute aldaketa kultural eta sinbolikoek indibidualismo liberal handi hura urruntzen dutela, errate baterako, honek zuelarik interes berekoa aldaketa sozialaren motoretzat.

Ziberfetixismoaren baitan norbanako askea izan nahi dugu eta, aldi berean, elkartasun eta konpromiso sare baten kide izan, burokraziaz harago.

Bada nolabaiteko dilema bat denok nahi ditugulako guk geuk hautaturiko harreman sozialak, ez behartuak, ezta derrigortuak. Baina, aldi berean, honakoa ere nahi dugu: gainerako guztiek osa dezatela elkartasun sare sendo bat, babestuko gaituena eta kooperazioa jarraitua eta ez noizbehinkakoa izanen dela bermatuko diguna.

Horrenbertzez, Interneten ematen den kooperazioak berriz ere tradizio emanzipatzaileen abiapuntura garamatza. Eta honatx gakoa: mende luzetam zehar izandako eraldaketa sozialerako saiakeretan ikasitako horretatik zer edo zer berreskuratzeko gauza izanen gara ala hutsetik abiatu beharko dugu?

KAPITALISMOAREN OSTEAN

Burujaetza eta elkarrekiko dependentzia

Postkapitalismoak alienazio burgesa menperatzea eta errealizazio pertsonala sustatzea du helburu.

Erralizazio pertsonalari helduz, hobesten ditugun edota gustura eta borondatez egiten



ditugun jardueren artean badira alde esanguratsuak. Horietako batzuk urrituz doan bazter erabilera dute, eta bertze batzuk, aldiz, gero eta gehiago egikaritu, orduan asebetegarriago bihurtzen dira. Azken hauei erreparatuta, nolabait errateko, jarduera bera da xedea. Aristotelek "jarduera perfektuak" deitzen zien. Gainera, horietako asko ez dira bakarrik egiten ahal, **bertzeen parte hartze ezinbertzekoa** baita, udal asanblada batean parte-hartzea errate baterako.

Etika modernoari ahortzi omen zaizkio gizakiaren berezko ezaugarriak direnak: gizakia denboran zehar irauten duten harreman sozialak eraikitzeke gauza da, bere indibidualtasuna aldarrikatzeko, politikoki antolatzeke, sortze-lan estetikoak eta intelektualak egiteke, arauak jarraitzeke, afinitatean oinarrituriko harremanak edukitzeke...gauza da.

Sistema sozial baten ebaluazioak ezin du neutrala izan giza gaitasunak potentziatzeko duen gaitasunaren eta egokitasunaren aitzinean. Baina, espezie bezala, gaitasunak ez ezik, ahuldadeak ere baditugu. Hortaz, **ez dugu bizirauten ahal ez badugu bata berteza zaintzen.**

Kodependienteak gara eta etikaren oinarri gisa norbanakoaren askatasunaren edozein kontzepziok koherente izan beharko du errealtate antropologiko horrekin.

Alasdair MacIntyre filosofoak uste du giza kodependentziak eragin nabarmena duela morala eta arrazionalitatea garatzeko dugun moduan. Izan nahiko genukeen pertsona-mota estuki loturik dago betebehar eta gaitasun komunitate batean egiten dugun parte-hartzearekin.

Errealizazio gaitasuna, bai indibiduala baita taldekoa ere, eta ezin da elkarri laguntzen diogun modutik bereizi. Eta hala, geure nolakotasun dependiente afera politiko baten gisan hartu beharko genuke.



Elkarren arteko zaintza lotura politiko arrazionalaren oinarria da, norbanakoaren kapritxoetatik eta formalismo kontraktualetik aldentzen dena.

Berdintasuna esku-hartze politikotik heldu da eta hiritartasuna eta demokrazia eraikitzen eratorritako produktua da, sistematikoki elikatu beharrekoa. (Rendueles, 2013)



9. AISIALDIA

Aisialdia ulertzeko modu bat

Deustuko Unibertsitateko Aisialdiaren Ikerketaren Institutuan baieztatzen dute **aisialdia norbanakoaren esperientzia integrala eta oinarrizko giza-eskubidea dela**. Aisialdia balio handiko esperientzia da egun subjektuak atseginez, behartuta eta derrigortuta egon gabe egiten duen giza-bizipen gisa antzematen baitu. Aisialdia giza-bizipen libre, alai eta berezko helburua duena da, hau da, borondatez egiten da, bizi-premia edota beharretik aldentuta, oinarrizko beharraz ari garela. Aisialdiaren esperientziak barne hartzen du pertzepzio subjektibo bat, non eragina duten bai esperientzia pertsonalak baita bizi zaren ingurune sozialak ere.

Esperientzian oinarrizko ezaugarri bat bere izaera prozesuala da. Haren bidez geure bizitzaren parte da denbora-dialogo baten bidez, oraina, iragana eta geroaren artean. Aisialdiko esperientzia batean erraza da zehaztea jarduera egiten ematen den denbora (bidaia bat egin, liburu bat irakurri, partida bat jokatu...); baina zailagoa da zehaztea bizipen osoan ematen den denbora. Hau da, jarduera egin aurretik jarduera bera proiektatzen ematen duzun denbora eta jarduera egin ondotik, jarduera gogoratzen ematen duzuna. Aisialdiaren bizipen osoa ematen da esperientzia modu osoan ematen denean eta zentzuz, hau da, hasiera, garapena eta bukaera duen prozesua ematen denean.

Aisialdiaren bizipenak esanahia irabazten du baita garrantzia eta kalitatea ere denbora-pasa hutsetik urrundu ahala eta denbora objektiboaren mugak hautsi ahala. Aisialdiaren



esperientzia aberastu egiten da bere errealitatea orainean zehazten duenean prozesualki eta adierazgarriki, dagokion iraganarekin eta geroarekin. Aisialdiko esperientzia baten bizipena hasten da edo hasten ahal da jarduera bera hasi aitzinetik. Heldu den denboraren erakargarritasunak itxaropenaz bizitzea ahalbidetzen digu eta ilusioz bete.

Egunerokotasunaren aitzinean, benetako aisialdia esperientzia gogobetegarria da, egiten den jarduera edozein dela ere. Aisialdiko esperientziek bertze testuinguru batean kokatzen gaituzte, non betebeharrak ez baitu agintzen, baizik eta berezko helburua duten jarduerak. Testuinguru hau biziraupenezko beharrianetatik urruntzen gaitu baina era berean garrantzitsuak diren bertze giza-beharrianetara hurbiltzen gaitu, hala nola, ezagutzaren beharrianera, obra edo adieraztearen beharrianera.

Aisialdiaren ikerketek sakondu dute giza esperientzien ezagupenean posizionamendu argi batetik: pertsonaren defentsa eta aisialdiko esperientziaren argitzea fenomeno indibidual eta sozial gisa. Baieztapen hau bihurtu da denboraren poderioz konpromiso etiko batean eta ondoko ezaugarriak dituen aisialdia ulertzeko modu batean:

1. Pertsona da erreferentzia

Aisiaren esperientzia ulertzeko gakoa subjekuta bera da. Honek ez du aisiaren izaera soziala ukatzen, baizik eta aisialdiko esperientzien gaineko erabakiak hartzeko askatasun indibidualaren nagusitasuna nabarmendu. Asia esperientzia aberasgarria da eta beti dago lotuta gure balore eta sakoneko esanahiekin. Beharrian pertsonala da eta bere asebetetzea bizi-kalitatearendako ezinbertzeko osagaia da. Aisia esperientzia integrala da, non norbanakoa **identifikatzen eta autoafirmatzen den.**



2. Izaera emozionala du

Aisia emozioen munduan kokatzen den bizipena da. Hortaz, garrantzitsua da maitasunetik elikatzea, nahiz eta arrazoiaren kontra ere ez dagoen. Hau baieztatzeko arrazoia hau da: aisialdiko esperientzia batek zentzua du “gustoko dut” sentitzen duzunetik. Ez da arrazoizko argudio bat baina bada afirmazio pertsonalaren adierazgarri bat gainerakoan aitzinean, nork bere desio eta gustuak adieraztea ahalbidetzen baitu. **Aisialdi esperientziek zerbait ekitera bultzatzen gaituzte, motibatzaile gisa jokatuz**, eta eskuarki, emaitzek betetasuna ematen digute ikuspuntu psikologikotik eta alderdi emozional hau nabarmenago antzematen da norbanakoaren espektatibak eta bizi izandako aisialdi errealaren arteko oreka edota bat egitea ematen denean.

Aisialdian bizitza arruntean baino garrantzia handiagoa ematen zaio emozioari eta fantasiari. Aisialdiko esperientzia gogoangarri batek sortzen dituen sentimentuak elkarren kontrako muturren artean mugitzen dira, hala nola, beldurra eta bozkarioaren artean. Honela, askotan esperientzia katarktikoak lortzen dira, atseginez gogobetetzen zaituena.

3. Balore eta bizimoduetan murgilduta

Aisialdia, subjektiboki baliotsuak diren jardueak egiteko alderdia den heinean, eremu ezinhobea da baloreen garapen eta bizipenerako bere alderdi guztietan. Aisia, izatez, balore bat da bere horretan. Baina, aldi berean, zoriontasuna edota norbanakoaren autoerrealizazioa bezalakoan menpeko balorea ere bada.

Nahiz eta kontsumo-gizarteak etengabe saltzen dizkigun aisialdi-produktuak xahubidean, neurrigabekeria, instintoetan eta plazerean oinarrituz, aisi-bizipenak betidanik



aisi-humanistari loturik egon diren bideetara lerratu beharko lirateke: ezagutza desinteresatura, hausnarketara, behaketara, sormenera eta transzendentziara.

4. Egunerokotasunarekin buruz buru eta lanarekin desberdindua

Aisi-bizipenak ezin ditugu lanarekin identifikatu, nahiz eta sarri oso hurbil egon. Lana beharrianarekin lotzen dugu baita derrigortasunarekin, eta egunerokotasuna monotoniarekin. Aisi-bizipenetan badago gozamen pertsonal sakonerako tarte bat beti, norbanakoa erlaxeatzea eta errutinatuak bizitzaren araudi zurruna desafiatzea posible egiten duena bere biziraupena eta gizarte-maila arriskuan jarri gabe. Atsedenez harago, lanaren jarraipen gisa aintzat har daitekeena, aisia geure bizitza bizi dugun bizipen atsegingarria da.

5. Denborakotasun tridimentsionala

Aisi-bizipenak bere errealitatea orainean markatzen du, baina aberastu egiten da hari dagokion iragana eta geroa nabarmenki gehitzen zaizkion heinean. Aisi-jarduera baten aitzineko tarteak ez du zertan “denbora libre” izan, ezta ondokoak ere. Heldu denaren erakargarritasunak itxaropenaz bizitza eragiten du. Ilusioa eta itxaropena geroari begirako proiektzioak dira nagusiki, eskuarki jai, opor eta hobbiak prestatzean leku garrantzitsua dutenak.

Aisi-bizipena, giza esperientzia den neurrian, zentzuz osatzen da jarduera egin ondoko denbora eransten zaionean: oroitzapenentarako tarte da, iraganeko jarduera gogobetegarri bat berriz bizitza posible egiten duen sentimendua. Eta azkenik, bukaera zoriontsua. Honek sekulako garrantzia izaten ahal du prozesu existentzial berri bat abiatzeko motibatzaile gisa



joka baitezake.

6. Trebakuntza beharrezkoa da

Aisia berehalako saria ematen duen jarduera bat izaten ahal da, bera gozatzeko entrenamendu zehatzik eskatzen ez duena. Aisi kasuala deritzo honi. Baina, eskuarki, **aldez aurretiko prestakuntza baten ondorioa** da, non partehartzaileek erakargarritasun handia sentitzen duten. Bai prestakuntzak baita aisi-jarduerak beraiek habileziak eta ezagutzak ematen dizkizute. Honi aisi serioa edo sustantziala deritzo. Aldaera honen bereizgarri nagusia, bada, ahalegina da: ahalegin jarraituari loturiko praktika, aurreikusi gabeko egoerak menperatzea, lorpen etapan gorabidea, inplikazioa eta pertseberantzia edota iraunkortasuna. Aisialdiko habileziak, jarrerak eta baloreak garatzeak pertsonen bizi-kalitatea hobetzea dakar. Aisiaren bizipen humanista bizipen osoa da, bizitzaren zentzuari estuki lotua eta norbere baloreei lotua, horiekin guztiekin koherentea. **Prestakuntzak prozesu hau ahalbidetzen du, argi utziz aisialdirako heziketa ez dela haurtzaroari soilik loturikoa, adin-tarte guztienganako eragina baitu.**

7. Intentsitate-mailen arabeko bizipena

Intentsitatearen ikuspuntutik, aisi-jarduera baten esperientzia, haren jartzea eta onartzea izaten ahal da – gustuko dudan zerbait egitea, bertzerik gabe- edo jardueraren esperientzia harkorra (rezeptiboa) eta kontemplaziozkoa. Azken hau esperientzia intentsoa izaten ahal da, ahaztezinga, katartikoa. Aisialdiko esperientzien ebaluazioak jarduerak berak sortzen ahal duen gogobetetze-mailan egon behar du zentratu-rik, bai prozesuan baita



emaitzetan ere.

8. Betebeharretatik urrun

Aisia derrigortu gabeko jarduera bat egitea da, atsegin duzulako, zentzu bat duelako. Bizipenezko esperientzia bat da, egin behar duzuna egin beharrean, gustuko duzuna egitea da, nahiz eta iraunkortasuna eta borondatezko konpromisoa ez diren kanpoan geratzen. Kutsakorra da, adibideen bidez hedatzen dena, esperientzia positiboen bidez, hain zuzen ere.

9. Diziplinartekotasuna

Aisialdi Ikasketen ezaugarri esentziala aisialdirako hurbilpen globala da. Norbanakoaren esperientzia eta gizartearen fenomeno gisa aintzat hartuz gero, ezin da soilik diziplina akademiko tradizional bakan baten ezagutzatik lerrokatu.

Aisialdi Ikasketa eguneratuen ideala zeharlerrotasuna da, egun aisiaren fenomeno eta bizipena zer den erakutsi eta ulertu nahi duena.

10. Giza-garapenaren esparrua da

Aisia giza-garapenaren esparru gisa aintzat hartzen da, gogobetetasuna, askatasun bizipenak eta autotelismoa ematen dituen neurrian, hau da, ekoizpenarekin harremanik ez duten bizipen ez utilitarioak eskaintzen dizkizun esparrua da. Oinarri horretatik abiatuz ulertzen ahal da, paradoxikoki, garapen ekonomikoan duen eragina, sozialean eta kulturean. Egungo aisia bizi-kalitatearen adierazlea da modu zuzenean aisi-beharra gogobetetze gisa, baita zeharka ere, bertzelako desajuste batzuk eta gabezia pertsonal eta sozialak zuzentzeko



orekatzaile gisa. Aisiak, zeregin atsegingarri gisa, lehen lanaren bidez asebetetzen ziren behar asko ordezkatzeko, baina egun, haren gabezia dela, haren egungo ezaugarriak direla, zail-zaila da horiek egitea. Honelakoek determinatzen dute egun ezin izatea bizipen espontaneo arrunt baten moduan ulertzea, baizik eta esperientziak bezala, balio handiagoa dutenak baita helduagoak direnak prestakuntzari esker.

Aisia balore bat da bere horretan baina, aldi berean, bertze balore zabalago eta transzendentetako batzuen menpeko balorea da. Aisi positiboak balore pertsonal eta komunitarioak potentziatzen ditu bere buruaz harago, baina balore gehienak lotuta daude praktikatzeko den aisiarekin.

Aisia, berezko balioa duen esperientzia gisa gainerako bizipenetatik desberdintzen da garapen pertsonala eragiten duten sormenezko topaketak sortzeko duen potentzialitatea eta gaitasuna dela eta. Aisi-esperientzien balioa gure beharrezkin lotzen da. Maslowek proposaturiko giza-beharrezkinen sailkapenari jarraiki esaten ahal da ibilbide luzea dela aisi praktiketan, aisi kaltegarritik elkartzunezko aisiraino. Azken honetan, norbanakoak heldutasun eta garapen-pertsonal maila jakin bat lortu du. Elkartzunezko aisiak gogobetetzea bertzei laguntzen aurkitzen du eta barne biltzen du aisi aktibo, sustantzial eta sormenezkoaren gaitasunak: gozamenerako gaitasuna, inplikatzeko jakitea, sormenez adieraztea, etab.

Aisialdiko esperientzien hierarkiak alor pertsonalean eragin zuzena du eta, aldi berean, giza-jokaerarako pautak ematen ditu. **Elkartzunezko aisialdiko esperientziak lotzen gaituzte bertzeen bizitzekin eta elkarrezagutza eta elkarrulertzearen bidean jartzen gaituzte.** Gero eta



ezagutza gehiago, orduan eta ulertzeko eta asebetetzeko gaitasun gehiago.

Ikuspuntu komunitario batetik, aisialdi duina praktikatzea ezin da pertsonaren oinarrizko baloreetatik, hiritastasunetik eta elkarbizitzatik urrun egon. Hortaz, aisialdi justu, etiko eta inklusiboaz ariko ginateke.

(Manuel Cuenca Cabeza)

Aisiako Ikaskuntzen Institutua



10. PRAKTIKA ONAK

10.1 HIRI KOLABORATIBOAK

- **Social Street: Italia**

2013an Bolognan Residenti in Via Fondazza facebookeko taldea sortu zen karrika bereko bizilagunak elkar ezagutzeko egitasmo gisa. Bakar baten ideia izan zen semeak norekin jostatu ez zuela ikusirik, auzokideak ezagutzen ez zituela ohartu zelarik.

<http://www.socialstreet.it/>

- **Streetbank: London (Chiswick)**

Sam Stephensen ideia izan zen hau eta haren xedea auzokideen artean partekartzea sustatzea izan da hasiera-hasieratik.

<http://www.streetbank.com/splash?locale=en>

Bietan benetako gizarte-sareak eraiki dira tokian tokikoa oinarrian.

10.2 INTERNETEKO SARE SOZIALAK


MEETUP

Munduko talde sozialen sarerik handiena da. Meetupen bidez edonork tokiko talde bat sor dezake baita dagoeneko aurrez aurre elkartzen ari diren milaka lagunak aurkitu. 9000 taldetik goiti elkartzen dira egunero tokiko komunitateetan, euren burua zein komunitatearena



hobetzeko xedea dutelarik.

Meetupen misioa tokiko komunitateak biziberritzea da eta munduko osoko jendea laguntzea antolatzen eta elkartzen, elkar ezagutzen. Meetupek sinesten du jendea bere mundua aldatzeko gai dela, baita mundu osoa ere, taldeka antolatzen badira, hala aldea markatzeko adina ahalmen eskuratzen baita.



<http://www.meetup.com>

ELAIDE

Elaide Saretik Plazara sare sozial bat da, Nafarroako Euskara Zerbitzuek euskaldunentzat eta euskara ikasleentzat sortua. Zaletasunak eta interesak partekatzen ahal dira bertan, kide edota partaideen artean planak zabaltu eta egin, informazioa partekatu, albistek komentatu...

Euskal hiztunen saretzea hiriguneetan



Euskaraz badakiten eta ikasten ari diren euskaldunak biltzen ditu Elaidek, sarean nahiz plazan, euskara eta euskaraz bizitzeko beste aukera bat emanez. Hiztunentzako aisiarako beste aukera bat ematen du eta euskara ikasten ari direnen bidelaguna izan nahi du Elaidek.



11. ONDORIOAK

Euskararen egoera zein den ikusirik, arnaguneen garrantzia ukatu gabe, hiriak estrategikoak direla aitortu behar da lehenik eta behin. Izan ere, bertan bizi da dagoeneko lau euskaldunetatik bat.

Hirietan euskaldunak sakabanatuta egon arren, eta hirietan euskaldunen dentsitatea txiki samarra izan arren, kopuruz asko dira eta xede izan beharko genuke euskaldun horiek harremanetan jartzea erabilera areagotzeko.

Ezagutzaren gizartearen baitan, hirietako sozializazioan ere eraldaketak izan dira, eta eremu fisikoa ez ezik, hiriaren eremu digitala ere kontuan hartu behar da harremanak eraikitzen diren espazioen artean. Belaunaldi gazteenen artean dagoeneko eman da aldaketa hura.

Euskaldunak sartzeko eta harreman berriak egiteko eskura ditugun baliabide guztiak aintzat hartu behar dira eta IKTen potentzialtasunaz jabetu. Izan ere, egun espazioa eta denboraren muga gaindituz, elkar ezagutzen ez duten pertsonak erlazionatzeko erabiltzen dira jadanik. Hiztun-komunitatea trinkotzeko tresna gisa interpretatu eta erabili beharko genituzte.

Interneten euskararen erabilera handitzea, bada, ez da bazter batean uzten ahal. Erabilera handitzeko ahaleginean, hizkuntzan hartzen duen eremua bere osotasunean hartu beharko litzateke eta. Ez da samurra euskararen erabilera sarean zehazkiro neurtzea, adierazleetan objektibotasuna falta baita. Aurrerabideak ezin ukatuzkoak dira, eta hor dugu



.EUS domeinua, euskararen arnagune digitalaren papera joka dezakeena. Edukiak euskaraz sortzen jarraitu beharra dago, eta horretarako, euskaldunen ahalduntze digitala jorratu beharko litzateke.

Hala ere, teknologiak ez gintuzke itsutu behar, ez genuke gabezia guztiendako irtenbide gisa ulertu behar, baizik eta hirietan galdutako konexioa, konfiantza eta auzotasuna berreskuratzeko aukera gisa, egungo egoerara egokituz. Euskara Interneten ere egotea garrantzitsua da zeharo, baina ez dugu zertan pentsatu aurrez aurreko harremanak ordezkatzeko dituztela.

Sareko sozializazio moduak zaletasunak, baloreak, interesak etab. partekatzen dituzten norbanakoak lotzen ditu. Noizbehinkako harremanak izaten ahal dira, nola luze joko dutenak. Norberaren esku egon arren, ez da aldeztu aurretik konpromiso maila altua eskatzen eta hau inon idatzita ez egon arren, zabaldua dago eta sareko erabiltzaileek barneraturik dute. Arau hauen artean, bada, sar liteke gauza bera hizkuntza-irizpide/hautu zehatz batekin egitea, hau da, harremanak euskaraz izateko helburuarekin. Sarean bizikletaz ibiltzeko kide bat bilatzen ahal duzun bezala, bizikletaz ibiltzeko kide euskaldun bat bilatzen ahal duzu, bizikletaz ari zarela euskaraz solasteko helburua ere baduzula.

Nahiz eta noizbehinkakoak ere balekoak izan, harremanok luze jo dezaten, denboran iraunen duten harreman sendoak erdiesteko, euskaraz solastea ez da aski. Hizkuntza *behikularra* da. Horrenbertzez, harreman horien ardatza bertze arrazoi batek bete behar du.



Aisiak egun duen garrantzia aintzat harturik, horixe izaten ahal da aipatutako ardatza eta, aldi berean, eragin-eremua. Esparru informala izanen da gehienetan, baina formalera ere pasatzen da sarri.

Aisialdian eta aisiaren bidez euskararen erabileran eragiteak duen abantaila, aisiari atxikitzen zaizkion balore positiboak dira. Alde batetik, gizarte-harremanak eta integrazio soziala ahalbidetzen ditu. Izan ere, aisia partekatzen denean, balore sozialak lantzen dira, tolerantzia eta berdintasuna, bertzeak bertze. Eta, bertze alde batetik, giza-bizipenaren eremu zehatza den neurrian, berezko onurak dakartza, aisi sortzaile eta abersgarri gisa eratzean, maila pertsonalean baita sozialean ere hazteko bizipen positiboen iturri baita. Aisialdiko esperientziak zerbait ekitera bultzatzen gaituzte, motibatzaile gisa jokatzuz. Euskara puntu honetara ekarriz, are aberasgarriago egin liteke erabileraren esperientzia, are motibagarriagoa.

Hirietan gertatzen dena nekez ematen da modu isolatuan eta kanpo eraginik jaso gabe. Egundak, eraldatze prozesu baten abiaburuan badira, gizartearen eskutik heldu da. Horrenbertzez, gizartea parte-hartzailea, jasangarria/iraunkorra, multikulturala, sortzailea, berdea, bizikidea, konektatua bada, horrela baldin badator, hiriak ere bai. Norabide horretan egingen dute. Eraldatze-prozesu honetan, joerak ikusirik, euskarak bere lekua egin lezake eta erabileran eragiteko gune eta uneak aldarrikatu.

Hiri adimendunak garabidean daude eta munduko hainbat tokitan bere lekua egiten ari dira. Hiriok ez dira soilik sentsoreak dituzten hiriak, bertako biztanleei entzuten dietenak baizik,



haien proposamen eta eskerei erantzuten dietenak, erabakiak hartzerakoan parte har dezaten bideak paratzen dituztenak eta bere kudeaketari buruzko aferak modu gardenean azaltzen dituztenak. Hirien abantzamendua ez dago kapital fisikoaren menpe bakarrik, baita kapital intelektualaren eta gizarte-kapitalaren menpe ere, gero eta hein handiagoan. Hiri adimenduen bereizgarria gizarte- eta ingurumen-kapitala da. Euskal hiriek urratsak ematen hasi dira, kapital berdea izateko dela, mugikortasun teknikariak izatekodela... hiri bizigarriagoak izan nahian.

XXI.mendeko hiriak gutxienez bi dimentsio ditu, fisikoa eta digitala. Euskarak bietan behar du bere lekua egin. Hiriguneek, gune erdaldunak izanik ere, euskararendako arnagune fisikoak eskaini ditzakete, baita arnas-uneak eman daitezkeen aukerak ere. Hiriaren espazio publikoa bizitzaren sozializatorako oinarritzko eta ezinbertzeko mekanismoa bada, euskarak bereganatu behar du. Hirietako espazio publikoak geureganatzeak berebiziko garrantzia du, bada, kulturaren zabalpenerako.

Hiriak barnebiltzen baditu hiritarrak, espazioa eta administrazioa, euskararen erabilera areagotzeko proposamen honek 3 horiekin lan egingen luke. Aurretik erran bezala, espazioak bi dimentsio ditu, fisikoa eta digitala, eta biak bereganatu beharko lituzke. Internet eremu ez euskaldunetan bizi diren euskaldunendako tresna bikaina da praktikatzeko, baina hortik harago, saretik plazarako jauzia eragin lezaketen harremanak sortzeko tresna ere izan liteke, horrela bi espazioak uztartuz. Hiritarrei dagokielarik, elkar ezagutzen ez duten euskaldunak harremanetan jartzeko norbanakoa aktibatu behar da. Jarrera proaktiboa beharrezkoa da eta



erabilera euskaldun guztiei dagokie, ez soilik euskaldun berriei. Enpatia garatu behar da, elkarren arteko zaintzari merezi duen lekua eman. Hizkuntza, euskara, komuneko ondasun ez-materiala da eta hitz egiten duten hiztunak behar ditu osasuntsu bizitzeko. Eta bukatzeko, administrazioari heldurik, asko egin lezake, euskararendako arnaguneak sortu, adibidez, ekologikoagoa eta berdeagoa izateko bide-gorriak egiten dituen bezala. Borondatea, beharra onartzea eta baliabideak eskaintzeko prest azaltzea.

Azken aldi honetan hirien berrinterpretazioa ematen ari den une hau aprobetxatu beharko genuke euskarak espazioak behar dituela aldarrikatzeko eta ulertarazteko eta, aldi berean, bizigarriago izateko nahia dela eta, bizikidetzeta eta elkarbizitza gida hartu badituzte, hiriek, bere dimentsio eta zentzu zabalenean, hizkuntza gutxituaren beharrei erantzun beharko liekete.



12- BIBLIOGRAFIA

- EUSKO JAURLARITZA (2011) V. Inkesta soziolinguistikoa. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- GARCÍA, Iñaki (2004). Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala. <http://www.soziolinguistika.eus/node/1779>
- EUSKARAREN DATU BASEA (2011). Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, Herrialdeka. <http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=orriak&zo=63>
- BENGOTXEA, Xabier (2012). Arnasguneak. Ezaugarriak. Zenbait arnasmuneren egoeraren behaketa. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Xabier%20Bengoetxea.pdf>
- AIZPURUA, Jon (2014). Nolako hiriburua, halako hizkuntza. <http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/liburutegia/2014/11/nolako-hiriburua-halako-hizkuntza/>
- MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta JAUSORO, Nekane (2008). Euskarazko Gizarte Sareak Hiri Guneetan. <http://www.soziolinguistika.eus/files/NekaneJausoro%20C%20I%20C3%B1aki%20Mtez%20de%20Luna%20EUSK.pdf>
- GAINDEGIA (2014). Interneten Eskuragarritasuna Euskal Herrian http://www.gaindegia.eus/sites/gaindegia.eus/files/argitalpeneranskin/datu_sorta_ekaina_internet_konexiodun_etxeak.pdf
- BORJA, J. eta MUXÍ, Z. (2000). El espacio público, ciudad y ciudadanía. http://www.esdi-online.com/repositori/public/dossiers/DIDAC_wdw7ydy1.pdf
- EHU, Udako Ikastaroak (2013). *Smart City (cities). Smart Thinking.* <http://www.fomentosansebastian.eus/eu/gaurkotasun-albisteak/ekitaldiak/smart-energy-en>



[ekitaldiak/927-ehuko-udako-ikastaroak-smart-city-cities-smart-thinking](#)

- **EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGOA GIPUZKOAN (2015). AGORA 2015 Hiri Berrikuntza Lantegiak.** <http://www.coavnss.org/berria/agora-2015-hiri-berrikuntza-lantegiak>
- **CASTELLS, Manuel (2001). Internet y la sociedad red.** <http://tecnologiaedu.us.es/cuestionario/bibliovir/106.pdf>
- **RENDUELES, Cesar (2013). Sociofobia. 1. edizioa.** Capitan Swing
- **RENDUELES, Cesar.** En torno a la crianza cooperativa. <https://espejismosdigitales.wordpress.com/2016/05/12/en-torno-a-la-crianza-cooperativa/>
- **CUENCA, Manuel (2009). Una forma de entender el ocio.** <http://www.asociacionotium.org/wp-content/uploads/2009/03/una-nueva-forma-de-entender-el-ocio.pdf>
- <http://www.socialstreet.it/>
- <http://www.streetbank.com/splash?locale=en>
- <http://www.meetup.com/>
- <https://elaide.eus/eu>